

SIMULACRO

Nitya Lopez Saitua: “Garrantzitsua zen guztiz zintzoa izatea”

NAIA ARANTZAMENDI

Zuzendaria haurtzaroko etxera itzuli-ko da eta inprobisazioaren eta artifizio propioa agerian uzten duen filmaketaren bitartez inoiz uxatu gabeko oroitzapenak eraikiko ditu. Baina egoerak sortuz doan heinean zuzendariaren eta semearen arteko mugak lausotzen joango dira.

Dokumentalaren eta fikzioaren artean kokatzen den lana du-gu *Simulacro*. Gurasoen etxera buelta egiten duzu bi aktoreekin. Zer bilatzen zenuen abiapuntu horrekin?

Pelikula baten eraikuntza jasotzen da filmean, normalean aktore lanean landu ohi den, baina kanpoan gertatzen den, prozesu hori guztia erregistratzeko modu bat izan da. Nire ustez kanpoan gertatzen den horrek indar zinematografiko handia du. Bestalde, aktoreekin nire gurasoen pertsonaiak lantzea zen planteamendua, harremanaren hasieratik nik lau urte nituenen izandako eztabaidara arteko prozesua. Adinagatik gogoratzeko gai ez naizen hori aktoreekin berreraiki ahal izatea.

Egoerak planteatuz aurrera joan den grabaketa bat izanik, inprobisazioa filmaketa osora zabal-dutako ezaugarri bat izan al zen?

Bagenuen mapa bat, baina egoerak joanean planteatu nituen, sekuentziarako oinarritzakoak ziren osagaiak ematen nizekien eta egoera horietan inprobisatzen zuten. Helburuak eta oztopoak zehazten nituen, baina ez zegoen gidoia idatzita; gidoia unean idatzi da.

Baliabide asko uztartu dituzu, puzzle gisa eratzen doan kontakizuna sortzeko. Grabatzen hasi zinenen argi al zeneukan zein izango zen filmaren formatua?

Ez nituen argi ez formatua ezta iraupena ere. Hiru egunez amaren lbarangeluko etxean grabatu dugu. Baina grabaketan jada elkarrizketetatik at joan nintzen. Esaterako, lehen aldiz filmari buruz aitarekin hitz egin nuen deia da pelikulan agertzen den aitaren offa. Ez nekien filmean sartuko nuenik, baina pelikularen eraikitzearen parte bezala jaso nuen, horrek guztiak lekua izan zezakeela ulertuz. Hasiera batean film labur luze bat egiten ari nintze-la uste nuen, baina pixkanaka kon-turatu nintzen mami asko zegoela.

Bizi ez zenituen egoeren birsortze bat planteatzen duzu. Nolako izan da zuzendaria protagonista-rengandik banatzea?

Banekien bi rola jokatzeko nituela, baina nik ez nuen nire rola aktore gi-

sa planteatu. Nolabait, nire agerpe-na filmean istorioaren zuzendari gisa da, eta aldi berean semea ere banaiz. Hortaz, semearen zatia agertzen zenean, nire aurrean gertatzen ari zen horren aurrean erreakzionatzen ari nintzen. Ez nintzen kontziente bilake-ta horretaz edo emozio izpi horien agerpenaz. Baina niretzat oso ga-rrantzitsua zen guztiz zintzoa izatea; ez izatea funtzio narratibo estrategiko bat; agertu behar bazen, agertzea, eta hala izan zen.

Zuzendari batek izan ohi dituen kontrol erremintak albo batera utzi behar izan al dituzu barne emozioak aske uzteko?

Paradoxikoa da, zuzendaritzak ka-meraren aurrean gertatzen den ho-rren gaineko kontrola izatea dakarre-lako. Baina proiektu honen garapen prozesuan hartu nuen erabaki ga-rrantzitsuenetako bat izan da, hain zuzen ere, pantailaren aurrean gertatzen ari zen horren aurreko kon-trola izateari uko egitea. Eta gidoi bat ez izateak egoeren aurrean ni neu harritzea ekarri dit.

Lehenengo film luzea duzu eta estreinaldia Zinemaldiaren baitan izango da. Nola jaso zenuen albistea?

Harrigarria izan zen. Zinemaldia hur-bileko jaialdi bat bezala sentitzen

dut, eta filma estreinatzeko ager-toki ezin hobea dela iruditzen zait. Film hau bazterretatik egin dugu, nolabait esaterako, ez baitu gara-pen-prozesu luzerik izan, ezta ohi-

ko finantzaketa egiturarik ere. Une zehatzean dator, niretzat zentzua duen unean. Hortaz, horrelako jaialdi batera ailegatzea leku apal batetik abiatuz zoragarria da.



NORA JAUREGUI

ITZALAK ARGITZEN

Klasikoak argitzen dituen harribitxia

N.A

Norantz joan nahi dugun erabakitze-ko hastapenetara begiratzea ariketa interesgarria izan ohi da. Bederatzi egunez zinemaz gozatzeko auke-ra eskaintzen duen Donostia Zine-maldia leku aproposa da zinemari buruz hausnartzeko, etorkizuneko lerroak zehazteaz gain, atzera be-girada egiteko eta, nola ez, oinarriari erreparatzeko. Hori da zehazki, *Itza-lak argitzen* dokumentalak propo-satzen duena.

80ko hamarkadan euskara hutsean egindako lau film ertainen zaharber-ritze prozesua dokumentatu du-te Gorka Bilbao eta Koldo Alman-doz zuzendariak. Klasikoak bilakatu diren Xabier Elorriagaren *Zergatik panpox*, Jose Julian Bakedanoren *Oraingo izen gabe*, Anjel Lertxun-diren *Hamaseigarrenean aidanez* eta Alfonso Ungriaren *100 metro*



filmak jartzen dituzte erdigunean, baita haien protagonistak ere.

Zinemaren industria sortzeko egindako ahalegin ausart batetik

abiatuta ondu ziren lau proiektuak, zehazki, Eusko Jauraritzak 1985ean eleberrietan oinarritutako euska-razko filmak egiteko apustu batetik.

Orain, filmen zuzendari zein prota-gonistak bide hartuta, filmak zahar-berritzeko egindako bidaia erregis-tratu da *road movie* gisa, Boloniako L'Imagine Ritrovata laborategie-tara egindako bidaiaren bitartez. “Filmak garai bat islatzen du, due-la berrogei urte euskal zinemaren hastapenetan nola lan egin zen iku-siz eta gaur egunera arte izandako garapena”, azaldu du Almandozek.

Lau filmetako zuzendariak, Aran-txa Urretabizkaia eta Arantxa Ren-teriarekin batera, topo egiten dute berriz duela berrogei urte zuzendu zituzten lanekin, hain zuzen ere, hori baitzen Almandozen eta Bilbaoren helburua, filmak zuzendariak beraiek kontatzea. “Aitzindarien filmak dira. Garaian ez zegoen zine industria-rik, ez zegoen profesionalik eta tal-de teknikoetako buruak Madriletik ekarri zituzten, hemengoei ofizioa irakasteko”.

Filmak balioan jartzeaz gain gra-baketako uneak gogoratzen dituz-te, eta horretarako filmak grabatu zituzten lokalizazioetara buelta-tzeko ariketa egiten dute, filmetako sekuentziak berbisitatuz. “Filmak, muinean, lau pertsonaia erakusten ditu, lau protagonista, bakoitza be-re ibilbidearekin. Filma western kre-puskular baten modukoa da, non cowboy hauek beraien iraganari errepasso bat egiten dioten Italia-rako bidaian barrena”.

Artxibo irudiak, lehen eskuko testigantzekin eta filmetako se-kuentziekin uztartzen dira, iraga-naren eta orainaren arteko elkarriz-keta bat sortuz. “Gaur egunetik zer-bait berria eskaintzea izan da hel-burua, film horietan dagoenaren eta gaur egungo denboraren iragana islatzea, filmak memoria direla eus-ten duten proiektu edo produktuak ikustea”.